


<p>Esperimentazioa Kimikan</p>	<p>8. Praktika Etanol-ura 50%-ekonahastearen destilazio zatikatua.</p>	<p>E.U.P./U.E.P. Donostia</p>				
<table border="0" style="width: 100%;"> <thead> <tr> <th data-bbox="443 501 571 533" style="text-align: center;"><u>Materiala</u></th> <th data-bbox="927 501 1102 533" style="text-align: center;"><u>Erreaktiboak</u></th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td data-bbox="387 566 643 893"> Destilazio-matrazea Destilazio-zutabea Hozkailua Termometroa Probeta Gomazko hodia Kautxuzko tapoiak Berogailua Eustoina Giltzaur bikoitzak eta matxardak </td> <td data-bbox="924 566 1326 629"> Etanola-Ura %50-eko nahastea Beirazko bolatxoak </td> </tr> </tbody> </table> <p data-bbox="256 931 1347 1061">Destilazio zatikatua antzeko irakite-tenperaturak dituzten likidoak banatzeko erabiltzen da. Destilazio-matrazek ahoan destilazio-zutabe bat du. Zutabe honetan baporizazio eta kondentsazioak gertatzen dira etengabe; baporea eta likidoa kontrakorrantean doaz.</p> <p data-bbox="256 1099 1347 1229">Zutabe erabilienak Vigreux, Wurtz, Le Bel eta zutabe betegarriak (operari bakoitzak sartzen dion material betegarria darama (metala, beira, porzelana...)) dira. Vigreux zutabeek bapore eta likidoaren arteko ukipen azalera handiagotzeko arraildura batzuk dituzte.</p> <p data-bbox="256 1267 1347 1487">Teknika honetan hau da gertatzen dena: matrazean eratutako lurrina zutabearen zehar igotzen da. Zutabeak, lurrina baino hotzagoa dagoenez, kondentsazioa sortarazten du eta kondentsatutako likido honek, jaisterakoan, igotzen ari den lurrinarekin topo egiten du. Lurrinaren tenperatura likidoarena baino handiagoa denez likidoa berriro lurrindu egiten da. Prozesu hau errepikatzen da zutabearen zehar eta ondorioz irakite-puntu txikiena duen osagaiaren proportzioa handitzen doa. Zutabearen goialdera iristean osagai hori purua kontsidera daiteke.</p> <p data-bbox="256 1525 1347 1624">Matrazearen ahoan destilazio-zutabea jartzen da. Goialdeko saihest-irteera hozkailuari konektatzen zaio beirazko hodi batez. Destilazio-zutabearen ahoa termometro bat zeharkatua duen kautxuzko tapoi batekin ixten dugu.</p> <p data-bbox="256 1662 1347 1720">Hozkailuan ur-korrantearen norantza, destilatzen dugun likidoarenaren aurkakoa da.</p>			<u>Materiala</u>	<u>Erreaktiboak</u>	Destilazio-matrazea Destilazio-zutabea Hozkailua Termometroa Probeta Gomazko hodia Kautxuzko tapoiak Berogailua Eustoina Giltzaur bikoitzak eta matxardak	Etanola-Ura %50-eko nahastea Beirazko bolatxoak
<u>Materiala</u>	<u>Erreaktiboak</u>					
Destilazio-matrazea Destilazio-zutabea Hozkailua Termometroa Probeta Gomazko hodia Kautxuzko tapoiak Berogailua Eustoina Giltzaur bikoitzak eta matxardak	Etanola-Ura %50-eko nahastea Beirazko bolatxoak					

Esperimentazioa Kimikan	8. Praktika Etanol-ura 50%-ekonahastearen destilazio zatikatua.	E.U.P./U.E.P. Donostia
--	--	---


Wurtz



Le Bel



Vigreux




↑ Osagai
hegazkorrean
aberatsa den

↓ Osagai ez
hegazkorrean
aberatsa den likidoa

Alde esperimentalak

Etanol-ura %50-eko nahastearen 100 mL destilazio matrazean berotzen jarriko dugu eta probetan, destilatuaren lehen tanta jasotzen dugunean, temperatura neurtuko dugu, bai ere 10 mL jasotzen diren uneoroko. (T (°C), V_{destilatua}) balioak aurreko praktikako grafiko berdinean adieraziko ditugu, horrela destilazio zatikatuaren eta destilazio normalaren arteko ezberdintasunak aztertu ahal izango ditugu.

<p>Esperimentazioa Kimikan</p>	<p>8. Praktika Etanol-ura 50%-ekonahastearen destilazio zatikatua.</p>	<p>E.U.P./U.E.P. Donostia</p>
---	---	--



GALDERAK

- 1.- Zertan bereizten dira destilazio zatikatua eta destilazio sinplea?
- 2.- Noiz erabiltzen da destilazio zatikatua?
- 3.- Destilazioa gertatzen ari den bitartean, ze gertatzen da destilazio-zutabearen?
- 4.- Destilazio-zutabe guztiak, luzera berdina ahal dute (plater kopuru berdina)?